

ARARTEKO



2001eko martxoa

EUSKO LEGEBILTZARRARI TXOSTENA 2000-LABURPENA

HERRI DEFENDATZAILEAK KOORDINATZEKO XV. TOPAKETAK, GASTEIZEN

Ararteko erakundeak antolatuta, 2000ko ekainaren 29an eta 30ean Gasteizen Herri Defendatzaileak Koordinatzeko Topaketak egin ziren. Defensor del Pueblo de España, Defensor del Pueblo Andaluz, Síndic de Greuges de Catalunya, Valedor do Pobo de Galicia, Diputado del Común de Canarias, Ararteko, Justicia de Aragón, Síndico de Agravios de la Comunidad valenciana eta Procurador del Común de Castilla y León direlakoek hartu zuten parte.

Eskubideak bermatzeko erakunde horiek urtean zehar beren jardun arunten gaineko harreman estuak izan ohi dituzten arren, denek izaten dituzten arazoan gainean eztabaidatzeko eta elkarri jakinarazteko baliatzen dituzte koordinatzeko topaketak. Parte hartu zuten erakundeek ponentzia eta komunikazio desberdinak aurkeztu zituzten ondoko lau lan eremuez:

bakearen kultura; espetxeratzearen ordeko zigorrak; Administrazioaren ondarezko erantzukizuna; administrazioen jakinarazpenak herritarren berme gisa. Orduan Arartekoa zen Xabier Markiegi "Gure erakundearen bakearen kulturarako ekarpena" izenburuko ponentzia aurkeztu zuen. Aztertu eta eztabaidatu ziren gainerako gaietaz ere komunikazio bana aurkeztu zuen.

Topaketen lehen ondorio gisa, Gasteizen bildu ziren herri defendatzaileek konpromisoa hartu zuten zera sustatzeko: herri botere guztiak lagundu dezatela bakearen kontzeptio hobea eraikitzen, horretarako bizitza, askatasuna eta justizia, elkartasuna, tolerantzia, giza eskubideak eta emakume eta gizonen arteko berdintasunaren errespetuaren balore unibertsaletan oinarritutako bakearen kultura garatuz.



Topaketetan parte hartu zuten pertsonak, Guggenheim-en aurrean




Herri Defendatzaileak, Lehendakariarekin, Ajuria Enean.

ARARTEKO ERAKUNDEAREN JARDUNA ZENBAKIETAN


- Eragingarritasun maila oso handia da. Administrazioek irregularitasunen bat egin zuten kasuetatik ia % 90etan jarduera zuzendu egin dute.
- Gasteiz, Bilbo eta Donostian herritarrak zuzenean artatzeko dauden bulegoetan 3.002 kontsultari erantzun zaie.
- 2000 urtean 1.231 kexa jaso ziren.
- Udalak dira kexa kopururik handienaren hartzaileak (% 40,6). Ondoren, Eusko Jaurlaritza (% 39,6) eta foru aldundiak (% 15,4) datoz.
- Ogasuna (% 13,1) da kexarik gehien hartzen duen eremua, eta ondoren Funtzio Publikoa (% 12,9) eta Herri Lan eta Zerbitzuak (% 11,7) datoz.

- Kexak jartzen dituzten pertsonak ontzat jotzen dute gure esku-hartzea, eta horietako % 85,28k administrazioen batekin arazorik duenari Arartekora beti edo batzuetan jo dezan gomendatuko liokete.
- Arartekoaren sareguneetako orrialdeak - www.ararteko.net- bisita ugari izan du, eta Interneten bidez heltzen diren kexak guztirakoan % 6 dira dagoeneko.

ARARTEKO ERAKUNDEAREN ESKU HARTZEA ZENBAITERRAINO IZAN DEK ERAGINKORRA



KIXEN JATORRIZKO LURRALDEA 2000



DATU OROKORRAK

Erakundeak aztertu eta tramitazioa 2000 urtean amaitu zaien kexetatik % 30,92tan ateratzen den ondorioa izan da Administrazioaren jarduran irregulartasunen bat izan dela. Azpimarratu behar da kexa horietako lautik hiru baino gehiagotan ukitutako administrazioak kexa eragin zuen jarduna zuzentzea lortu dela, Arartekoaren esku hartzearen fase desberdinetako batean, gomendiorik egitera heldu beharrik gabe. Gomendiorik egin behar izan denean, erantzuna ona izan da, % 62 kasutan onartu egin baitira gomendioak. Konponbide biak kontuan hartzen baditugu, eragingarritasun maila % 89,7koa izan da.

2000 urtean 1.231 kexa aurkeztu dira. Gehien-gehienak banakakoak dira, baina badira 168 kexa talde desberdinek eginak, hala nola, auzokide elkarteek, aldarrikapenen baten inguruko plataformek, sindikatuek, talde ekologistek, eta abarrek.

Kexak lotzen direneko gaien arabera aztertzen baditugu, ohartzen gara Ogasunaren alorra dela kexarik gehien jaso dituenena, 123, ondoren, Funtzio Publikoa dator, 121 kexarekin, eta Herri Lan eta Zerbitzuen saila gero, 121 kexarekin. Funtzio Publikoa eta osasun saila dira igogerarik nabarmenena izan dutenak.


Kexa zer administrazioen aurka zuzentzen zen begiratzen badugu, udal administrazioak

izan da kexarik gehien jaso duena (398), eta ondoren Eusko Jaurlaritzak (387). Foru Aldundiak urrun geratu dira, 151 kexarekin.


Kexarik gehien jaso duten udalak, Bilbo (75), Gasteiz (48), Donostia (32), Irun (14), Basauri (9), Getxo (9) eta Abanto eta Zierbena (9) izan dira.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, kexarik gehien jaso duten sailak Hezkuntza eta Osasuna izan dira, 117 eta 114, hurrenez hurren. Amaitzeko, foru aldundiei erreparatu, 80 kexa Bizkaikora joan dira, 36 Gipuzkoakora eta 35 Arabakora.

ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA JARDUERA ALORREN ARABERA



ZUZENEAN BIDERATUTAKO KEXEN BANAKETA ERAGINDAKO ADMINISTrazioEN ARABERA




Artatu diren herritarren kexez gain, erakunde honek, bere ekimenez, euskal administrazioen jardun irregularrak izan zitezkeela pentsatzen zeneko edo lankidetzarako zein zerbitzu berriak emateko aukera sortzen zeneko zenbait gai ere aztertzeari ekin dio.

Ofiziozko ekintza horiek 46 izan dira,

zeinetan, kopuruarengatik, Ongizate eta Funtzio Publikoko sailekoak nagusitu baitira. Administrazioei erreparatzen badiegu, ohartuko gara udalak direla ofiziozko ekintzarik gehienak eginarazi dizkigutenak, % 41etik gora horietara bideratu baitira.

ARARTEKOAK JASOTAKO KEXA KOPURUAREN BILAKAERA (1989-2000)



¹ 1.143k berdin-berdinak diren bi kexa-multzo osatzen dituzte.
² 62k berdin-berdinak diren kexa-multzo bat osatzen dute.

ERREKLAMATZAILEAK ETA KEXAK AURKEZTEKO ERA


JASOTAKO KEXEN BANAKETA KEXA-EGILEEN EZAUGARRIEN ARABERA



JASOTAKO KEXEN BANAKETA ERABILITAKO HIZKUNTZAREN ARABERA



JASOTAKO KEXEN BANAKETA AURKEZTEKO MODUAREN ARABERA



ANIMALIAK EZ DIRA ERABILI BEHAR PUBLIZITATEKO ERAKARGARRI GISA ZOZKETETAN

Animaliei Tratu Etikoa emateko Elkartearen (ATEA) kexa batean azaltzen zenez, animaliak babesteko legedia ez dator bat Gasteizen urtero San Anton egunean egiten den txerriaren zozketarekin, eta zozketa egunean egiten den ekitaldiarekin. Ekitaldia udal kultura sailak antolatzen du eta animalia bera ere han egoten da.

Garbi dago jarduera horretan, helburuak onak izan arren, legeek esaten dutena bete behar dela. Eta ez da betetzen, zeren animaliak babesteko Eusko Legebiltzarraren Legeak beren



San Anton eguneko zozketa Gasteizen

(El Correoren argazkia)

beregi debekatzeko baitu "animaliak publizitateko erakargarri, sari edo ordain gisa erabiltzea". Udalaren ordenantza batek ere debekatzeko du.

Bada, legea errespetatzea gomendatu zen. Alegia, animaliak zozketarako erakargarri gisa ez baliatzea, eta animaliak ezein herri emanaldi edo ikuskizunetan baimenik gabe ez erabiltzea.

Gure esku-hartzearen ondoren, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunetarako Zuzendaritzak Gasteiz eta Bilbon egiten diren txerrien zozketetan legea betetzeko agindua eman zuen.

Legedia aldarazi zen, segurtasuneko zenbait baldintza ezarriz.



(El Correoren argazkia)

IBILGAILU PARTIKULARREK BUTANO BONBONAK GARRAIA DITZAKETE

2000ko otsailean gas butanoa banatzeko arazoak izan zirenean, herritar batek banatzeko zerbitzu egokirik ematen ez zela adierazi zuen, eta bere zalantzak adierazi zituen etxerako gas bonbonak (butanoa, metanoa...) garraiatzeko ibilgailu partikularrak erabiltzea legezkoa zen ala ez gaiaz.

Gaia aztertu ondoren, ikusi zen merkantzia arriskutsuen garraioa araupezen duen Legean aldaketa bat egin berri zela, eta partikularrei banaketako zentrotik gasa garraiatzeko baimena ematen zitzaiela. Gehienez 15 kilogramo eta bi ontzi gas eraman daitezke, beteta daudenean zutik eramaten badira eta eror ez daitezkeen neurri egokiak hartzen badira betiere.

Baimendutako enpresen horniketari dagokionez, erabiltzaileek eskubidea dute ontziratutako gasa etxera bertara 48 orduko epearen barruan ekar diezaieten, jai egunak zenbatu gabe. Baldintza horiek ez betetzeak administrazioaren araua urratzea dakar, eta Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailaren Lurraldeko Bulegoan salatu behar da.

OSASUN ZERBITZUEN FUNTZIONAMENDUAREN GAINEKO ERREKLAMAZIOEK ARRAZOIETAN OINARRITUTAKO ERANTZUNA JASO BEHAR DUTE

Osakidetzak bitarteko batzuk jarrita ditu erabiltzaileen eskura, haiek jaso duten artatzearen gaineko azalpenak eska ditzaten. Gaixoaren eta Erabiltzailearen Arretarako Zerbitzuak dira. Zerbitzu horien funtzionamenduaz ere jaso ohi dira kekek Arartekoan, zerbitzu horietan aurkeztu dituzten kekei jaramon eskasa egin zaiela edo erantzun ez zaiela dioten pertsonen aldetik.

Inoiz, gaixok salatutako jardueren gaineko ikerketek agerian jarri dute badirela jardunbidea txarra delako zantzuak, edo gutxienez, jardunbide hori hobe daitekeela. Hala ere, ez da halakorik adierazten Osakidetzako Arreta Zerbitzuek keka egin duen pertsonari helarazten dion erantzunean. Eta hori gaitzesteko modukoa da. Kexatzeko arrazoi zehatzak azaltzen direnean, erantzunean kontu horiei erantzun beharko litzaieke, funtzionamendu txarririk izan den ala ez adieraziz, eta zergatiak argituz.



(Diario Vascoren argazkia)

OSASUN SOROSPENENKO GARRAIORAKO ESKUBIDEA

Pertsona bat premiaz sartu behar izan zuten Palentziako ospitale batean. Bertan artatu ondoren, ambulanziaz eraman zuten zegoen ospitalera, Donostiara, hain zuzen. Ambulanziaz eraman zuten zegoen ospitalera, Donostiara, hain zuzen. Anbulantziaren gastua itzul ziezaioten eskatu zuen, baina Osasun Sailak ukatu egin zion eskaria, arrazoi geografikoen edota familia kontuen ondoriozko osasunaz kanpoko bidaiarik ordaintzen ez dela argudiatuz. Kexa horren ostean abiatu zen ikerkuntzak argitu zuen hau bezalako kasuetan, alegia, pertsona batek beste Erkidego bateko ospitale batean artatzen behar duenean, Osasun Sailaren iritziz pertsonaren osasun garraioaren eskubidea aldi baterako dagoen probintziako bere egoitzaraino soilik iristen dela.

Ararteko erakundea ez dator bat irizpide hori aplikatzearekin, ez baitago inongo lege

arautan jasota. Besteak beste, osasun garraioa ere arautzen duen Errege Dekretuak hauxe dio: "Osasun garraioak gaixoen edo zaurituen garraio berezia ere hartzen du honelako egoeretan: a) larrialdi egoera, interesatuaren osasunerako hil ala biziko arriskua edo atzerabiderik gabeko kaltea dakarrenean, eta eskumeneko medikuak hala agindu edo erabakitzen duenean, b) interesatuaren ezintasun fisikoa, edo medikuaren iritziz osasun zentro batera joateko edo behar zuten osasun artatzea jaso ondoren etxera itzultzeko garraio bide arruntak erabiltzeko eragozpena edo ezintasuna sortzen dioten beste arrazoirik dagoenean.

Gomendatzen da, beraz, baldintza horiek betetzen direnean etxerainoko osasun garraioa ordaintzea.

LANTOKIAN ERRETZEN DELAKO KEXAK DAUDE ORAINDIK

Barakaldoko udaleko langile talde handi bat berriro kexatu da, lantokian erretzen dutenek traba egiten dietelako, eta lan egiten duteneko administrazioak utzi egiten dietelako. Lehenago ere udalari gomendatu zitzaion, aurretiko keka bat zela-eta, esku har zezan legean xedatuta dauden erretzeko debekuak betearazteko.

Oraingoan eta salatu diren beste egoera batzuetan, hala nola Santurtziko udalekoan, susma daiteke azpian arazo zailak daudela, denok ezagutzen baitugu gure gizartean erretzeko ohiturak duen garrantzia. Hala ere, ez da ahaztu behar tabakoa pertsonaren osasunerako kaltegarritzat jota dagoela eta, Legeak erretzeko debekuari buruz ezarritako arau garbiez gain, gatazkarik izatekotan, erretzen ez dutenen eskubidea nagusitu behar delako printzipioa hartzen dela ontzat oro har.



Foru Aldundiak Valladoliden egotea onetsi zuen, Bizkaian zentro egokirik ez zegoelako

EZINTASUN PENTSIOA UKATU ZIOTEN KANPOKO ERROLDA BATEAN IZENA EMANDA ZEGOELAKO

Pertsona ezindu bat zaintzen zuen fundazioak kexa bat jarri zuen Gizarte Ongizateko Fondoko ezintasun pentsioa ukatu zitzaielako, eskatu zuen pertsona Bizkaiko errollda batean izena emanda ez zegoela argudiatuz.


Pertsona nagusi zein ezinduentzako pentsioak araupetzen dituen arauak betekizunen artean lurralde historikoko erroldaren batean sartuta egotea eskatzen du, eta esku artean dugun kasuan ez zen hala, eskatzailea, ezindua, Valladolideko zentro berezi batean sartuta baitzegoen.

Aldundiak, ordea, ez zuen kontuan hartu Bizkaitik kanpoko zentroan egotea hala egitea onartu zuen foru agindu batean oinarritzen zela, pertsona hori ezin zutelako behar zuen bezala artatu bere lurraldean bertan.

Azkenean, Aldundiak ezintasuneko pentsioa eman zion eta jarritako helegitea onetsi zuen.



(Diario Vascoren argazkia)



Donostiako Alde Zaharra

(Diario Vascoren argazkia)

ZARATA DONOSTIAKO ALDE ZAHARREAN

Donostiako Alde Zaharreko auzokideek, elkartean antolatuta, zarataren gainean dauden araudiak betearazteko orduan udalak dituen erantzukizunetan utzikeria izan litekeela salatu zuten. Kexatzen ziren azken urtean gaueko jarduera zaratatsuak, hala ostalaritzakoak nola inguruan antolatzen ziren ekitaldiak, izugarri ugari zirela.

Udalak erakunde honi laneko dokumentu bat helarazi zion, non Alde Zaharraren egoeraren diagnostiko xehatua egin eta izan ditzakeen konponbideak aurkeztu baitziren.

Lokaletatik kanpo kontsumitzeak, zaborrak biltzeko ordutegiak, terrazak dituzten establezimenduek, kalean zeharreko musikak, lokalak intsonorizatu gabe egoteak eta ireki eta ixteko ordutegiak ez betetzeak, jarrera hezigabeek, zama lanek, alde horretako kale eta plazetan izaten diren herri ikuskizunek eta abarrek sortzen duten ingurumeneko zarata handiaren ondoriozko arazoak adierazten ziren azterlan horretan.

Arartekoak on eta egoki iritzi zion diagnostikoari eta azterlanean proposatzen ziren jardun neurriei, baina kexatu zirengan pentsatuz, udalari gogorarazi zion ostalaritzako establezimenduak etengabe kontrolatu behar zituela, indarreko araudia bete dezaten, ingurumeneko kalteak sortzeko duten etengabeko arriskua ikusita.

UDALEK TXOKOEN ETA ELKARTE GASTRONOMIKOEN JARDUNA KONTROLATU BEHAR DUTE

Udalek etengabe zaindu eta begiratu behar dituzte beraiek baimendutako jarduerak, une oro instalazio lizentzian ezarri zaizkien murrizketak eta artezteko neurriak bete daitezten; baita zigortzera heldu ere, herritarren interes orokorra babesteko bada. Ararteko erakundeak gomendio hori egin du behin eta berriro, taberna eta jatetxeek sortzen dituzten traben gainean jasotako kexa ugari erantzuteko.

Txokoetan eta elkarte gastronomikoetan ere jatetxeetako jardueraren parekoa izaten da, eta instalazioak ez dira beti ondo egokituta eta zaratatik behar bezala bakartuta egoten. Halakoen ondorioak jasaten dituztenen kexa ugari jasotzen dira, eta kexan salatu ohi dute urteak daramatzatela udal zerbitzuek esku har dezaten eskatuz, baina ezer lortu gabe. Zenbait udalek alegatzen du txokoak eta elkarte gastronomikoak ez direla kalifikazioaren menpe dauden jarduerak.

Legediak, ordea, aurkakoa esaten du, alegia, sailkatutako jardueren erregimenaren menpe daudela. Udal erakundeek instalazioak legeztatu gabe dituzten txoko eta elkarte gastronomikoak jabeek, sei hilabeteko epean, jarduera legean xedatuta dauden artezteko neurrietara egokitzeko proiektua aurkez dezatela eskatu behar diete. Udalek, halaber, txoko eta elkarte horien funtzionamendua zelatatu eta kontrolatu behar dute.



(Diario Vascoren argazkia)

ITUNPEKO IKASTEGI PRIBATUEN BETEBEHARREN KONTROL HANDIAGOA EGIN BEHAR DA

Nahitazko hezkuntza doan eman nahi duten ikastegi pribatuek aukera hori izan dezaten baliatzen dira Hezkuntzako itunak. Hezkuntza administrazioak herri fondoak jartzen ditu ematen den irakaskuntza doakoa izatea ziurtatzeko. Irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen soldatak oso-osorik finantzatzen dira, baita mantentzeko, zaintzeko eta benetako inbertsioak itzultzeko gastu arruntak ere. Itunpeko ikastegi pribatuetako jabeek, ordainetan, itundutako irakaskuntza doan emateko ardura hartzen dute bere gain. Jarduera osagarriek, eskolaz kanpoko jarduerak eta eskola zerbitzuek nahitakoak izan behar dute eta ezin dira, inola eta inoiz ere, aberasteko asmoz egin.

Bideratu diren zenbait kexaren errealitatea ikusita, ordea, Ararteko erakundeak atera duen ondorioa da eskola erkidegoko atal desberdinek, baita inoiz administrazioak berak ere, ez dutela behar besteko sendotasunez jokatzeko, ikastegietako finantzaketaren errealitatea legeek ezartzen duten dohaintasun erregimenari estu-estuan lotzen ez zaiolako datuak ezagutzen dituztenean. Erakunde honek horren aurkako jarrera erakutsi behar du eta hartu dugun lege esparru horretatik urruntzea dakarren egoera hori salatu behar du. Ondorioz, Hezkuntza Sailari gomendatzen zaio ikastegietan egiten diren izatezko jardura eta zerbitzu osagarriak kontrolatzeko ahalegina handiagoa izatea, jardura eta zerbitzu horiek itunetan jarritako dohaintasun erregimena urra ez dezaten ziurtatzeko.

UDALEK EZ DIZKIETE ERROLDAKO DATUAK EMAN BEHAR IKASTEGIEI, HAUEK MATRIKULAZIORAKO EKINALDIAK EGIN DITZATEN

Eskolaratzeko adinera hurbiltzen ari zen neskato baten aitak kexa jarri zuen itunpeko zenbait ikastegi bere datu pertsonalez baliatzen zelako matrikulatzeko ekinaldiak egiteko, etxera bidaltzen zizkioten gutunak medio. Egin zen ikerketan jakin ahal izan zen Hezkuntza Sailak ikastegiei bi eta hiru urteko haurren helbideak emateko eskatu ziela udalei.

Datuen Babeserako Legea kontuan hartuta, atera zen ondorioa da hezkuntza administrazioak eta udal desberdinek datu pertsonalak eman diezazkioketela elkarri, baina datuak hezkuntza eskumenak behar bezala betetzeko beharrezkoak direnean soilik; esaterako, adinaren eta bizitokiaren arabera izan litezkeen ikasleei erantzuteko hezkuntza eskaintza antolatzeke. Baina datu pertsonalez baliatu gabe egin daitezkeen bestelako ekinaldietarako –hala nola, matrikulazio ekinaldiak sustatzeko- ez da inoiz datu pertsonalik eman behar, datuen babesa ekinaldi horien gaineratik baitago.

Ondorio hau Hezkuntza Sailera eta Euskal Udalerrien Elkartearen EUDELera helarazi zen, eta ondo iritzi diote biek.

Gasteizko Udalaren haur
eskolak:

HAURRAK ONARTZEAREN ALDERA JOTZEN ZEN GURASOEN UDAL HEZKUNTZA SAILEAN LAN EGITEN ZUTENEAN

Udalaren haur eskola hauetan haurrak hartzeko araudiak esaten zuen, ondo esan ere, hezkuntza helburu hutsetara bideratu ez ezik, guraso bakarreko familien (ama ala aita bakarrik seme-alabekin), amak eta aitak lan egiten duten familien eta abarren familiatzko eta lanbidezko betebeharrak bateratzen ere lagun zezaketen haurren matrikulazioa erraztu eta sustatu behar zela. Baina aita zein ama hiriko udaleko Hezkuntza Saileko langilea izatea ere kontuan hartzen zen haurrak onartzeko orduan, eta horrek ez du inongo justifikaziorik.

Ofizios egin zen ikerketan egiaztatu zen hoberi horien arrazoia aurreko lan egoeretan zegoela eta bazterketarako dituen ondorioak ezabatzen ahalegintzen ari zirela sindikatuekiko negoziazioaren bitartez. Hala ere, Gasteizko udalari gomendatu zitzaion aurrerantzean tratatu desberdin eta bitxi hori ken zezala, eta udalak gomendioa onartu zuen.



(Diario Vascoren argazkia)


Epaimahaiek ez,
irakasleek baizik

BILBOKO INGENIARIEN ESKOLAK EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GAINERAKO EK BEZALA EBALUATU BEHAR LITUZKE IKASLEAK

Kexa batean Bilboko Ingeniariei Eskolan ebaluatzeko jarraitzen den prozedura salatzen zen. Azterketak, deialdi guztietan, horretarako bereziki eraturako epaimahaiek ebaluatzen zituen, eta ez, ezinbestean, ikasgaia ematen zuen irakasleak. Praktika hori Eskolaren barneko araudiaren ondorioz zeterren.

Ebaluatzeko modu hori, ordea, ez dator bat Euskal Herriko Unibertsitatearen araudi orokorrarekin, non kalifikazioen erantzukizuna ikasgaia ematen dituzten irakasleei egozten baitzaie.

Hartara, EHUko gobernu organoei gomendatu zitzaizkien Ingeniariei Eskolako ebaluatzeko prozedura Unibertsitateko araudi orokorrera moldatzeko neurriak har zitzatela. Gomendioa zati batean baino ez zen onartu, eta egin ziren aldarazpenetan kasu askotan epaimahaien ebaluazioari eusten zitzaion.



Bilboko Ingeniariei Eskola

(El Correoren argazkia)



Iniciativa Gitana arduraduna haurrekin eskola ondoan

(El Correoren argazkia)

Azkenean, Barakaldoko haur ijitoak eskolatu zituzten

HAUR GUZTIEK DUTE HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA

Erretuerto-Barakaldoko Ametzaga herri eskola ikasturtearen erdian itxi eta ikasleak udalerriko beste ikastegi batzuetan banatu zirenean, gizarteko zenbait sektorek uko egin zioten ijito familietako haur jakin batzuk eskolatzeari. Arartekoak, eskolatu beharra eta erantzukizuna azpimarratzeaz gain, sektore desberdinen artean bitartekari egin zuen,

eskolatzeko proposamen zehatzak egin zituen eta "Iniciativa Gitana" elkartearekin eta Hezkuntza Saileko arduradunekin lankidetzan aritu zen.

Arazoak gainditu ondoren, denok daukagun hezkuntza eskubidea bermatu egin da

EL EJIDOKO BORTIZKERIA XENOFOBOAREN GAITZESPENA

El Ejidon (Almerian) 2000. urtearen hasieran bortizkeria xenofoboko gertaera larriak izan zirela-eta, Xabier Markiegi Arartekoak adierazpen hauek egin zituen:

"Giza eskubideen defentsaren ikuspegitik, kezkatuta nagoela adierazi nahi dut eta eraso hauek gogor eta sendo arbuizatzen ditudala.

Hain une delikatuetan lasaitasuna eta elkarrizketa berreskuratzea behar dira, baina horrek ez du ezkutatu behar atzerritar izate

hutsagatik pertsona eta ondasunen aurka izaten ari den bortizkeria basatia larria dela. Eraso xenofoboak eta arrazistak dira eta, hala izanik, tinkotasun osoz errefusatu behar ditugu.

Hain une larrietan, Legearekiko eta gizartearen partaide garen guztion arteko bizikidetasunarekiko errespetua babestu behar duen Zuzenbide Estatuak erantzun egokia eman dezan espero dute herritarrek. Bortizkeria horren biktimek agintaritzaren babesa eta Legea betearaz dadin behar dute, askatasunaren eta segurtasunaren adierazpide.

Atzerritarrek gizartean normal txertatzea da, jatorriz beste herri batekoak izan arren, gu bezala bizitza duina izateko borrokan ari diren gizakiokin bakean bizitzeko bide bakarra".



EGIN ZAION GOMENDIOA ONARTU ONDOREN, EITBK GIZARTEKO TALDEEK KOMUNIKAZIOKO HERRI HEDABIDEETARA IRISTEKO DUTEN ESKUBIDEA ERRAZTUKO DU

EITBren egoitza lurretan

(El Correoren argazkia)

Ararteko erakundeak ofiziozko jarduera abiarazi zuen gizarteko taldeek euskal herri irrati eta telebistara iristeko duten eskubidea –antena eskubidea ere esaten zaio- nola artikulatzen zen xehetasunez jakiteko.

EITBk emandako informazioetatik ateratzen da gizarteko taldeek herri komunikabideetara iristeko duten eskubidea oinarrizko eskubideen artean gutxien ezagutzen denetakoa dela, eta ondorioz, gutxien gauzatu eta eskatzen dena ere bai. Sistema anitz eta demokratiko baten jardunbidean, funtsezko baldintza da talde ideologikoak herri jabetzako komunikabideez baliatu ahal izatea, gizartea kezkatzen duten gai desberdinez dituzten iritziak eta ikuspegiak hedatzeko. Ildo horretan, Euskal Irrati Telebista herri erakundea sortzeko Legeak antenna eskubidea oso modu progresiboan jasotzen du.

Hori guztia ikusita, antenna eskubidea etorkizunean nola gauzatu den argitzeko eta gauzatzeko bide desberdinak zehazteko plana

egitea gomendatu zen. Gomendio hori onartuz, EITBko Administrazio Kontseiluak gizarteko taldeei antenna eskubideaz baliu daitezela lagunduko dien erabakia hartu du. Aurretiaz informazioko ekinaldia egin eta gero, datuak

helarazten dizkieten gizarteko taldeen zerrenda egin eta eguneratuko dute EITBko komunikabideek, talde horiek antenna eskubidea gauza dezaten errazteko.

Udal zerbitzuetakoek bazekiten egingo zutela

EZKUTUKO KAMERAZ IRUDIAK GRABATU ZIREN UDALAK ANTOLATUTAKO IKASTARO BATEAN UMOREZKO PROGRAMA BAT EGITEKO

Galdakaoko Udalak antolatutako ikastaro batera joan zen pertsona batek salatu zuen, berak jakin gabe, ikastarora joan zen beste pertsona bati adarra jotzen zitzaioneko irudiak grabatu zirela, telebistako umorezko programa batean emateko. Udal zerbitzuek bazekiten aurretik grabaketa egingo zutela. Kexa jarri zuenak eskatzen zuen irudi haiek ez zabaltzea edo, ematekotan, gutxienez bera identifikatzeko modurik ez izatea.

Eskari horiek onartu egin ziren baina, hala ere, Arartekoak bi oharretan oinarritzen zen txostena helarazi zion Udalari jokabide hori kritikatzeko: lehenik eta behin, grabaziorako baimena ematea ez datorrelako bat ikastaroen antolakuntzan lortu nahi den helburuarekin, eta, bestalde, Legeak babesten dituen ohorearen, intimitatearen eta irudiaren eskubideak urratzea ekar dezakeelako ukitutako pertsonen baimenik gabe irudi horiek hartu eta ondoren emateak.

BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN SALMENTA MERKATU LIBREAN

Zenbait pertsonak zalantzan jartzen dute babes ofizialeko gisa sailkatuta dauden etxebizitzei salmentarako prezio mugak jarri beharra. Beste batzuk kexatu egiten dira Eusko Jaurlaritzak ez duelako deskalifikatzea onartzen –etxebizitza libre izatera aldatzea- ezarritako epea iraungi ez bada.

Kasu horietan ez dago inolako irregulartasunik administrazioaren aldetik. Herri botereek sustatutako etxebizitzok helburu zehatza daukate: herritarrek bizitokia izateko duten beharra asetzea eta, azken batean, etxebizitza duina izateko eskubidea babestea, inguruabar ekonomikoengatik eta familiako zamarengatik beharrik handiena duenari laguntzeko. Horretarako, babestutako etxebizitza eskuratzea lortzen duten pertsonen zenbait abantaila izaten dute, hala nola,



(El Correoren argazkia)

mugatutako prezioa ordaintzea, salbuespen fiskalak lortzea, korritu mota baxuagoak eta fondo galduko finantzaketa izatea..., etxebizitza merkatuko baldintzak baino hobek diren baldintzetan erostea, hain zuzen. Beraz, zentzuzkoa da berme batzuk ezartzea, babes ofizialeko etxebizitzaren onurak ateratzen dituztenak ez daitezkeen etxea merkatuko prezioen baldintzetan saltzearen ondorioz aberastu, merkatuko prezioak babes ofizialeko etxebizitzek baino askoz ere garestiagoak baitira. Jabeek eskatuta babes ofizialeko etxebizitzak deskalifikatzeari dagokionez, erabakia Eusko Jaurlaritzaren esku dago, eta denon interesean oinarritu behar da banakoenean barik.

Babes ofizialeko etxea erosi nahi izatean aurkako ondorioak ekar liezazkioke

AHALMEN URRIKOAK: ONURA FISKALA AURKA JARRI ZAIE

PFGZren zerga oinarria kalkulatzeko, justifikazio zaileko gastuengatik % 5 kentzen da laneko etekinaren ondoriozko diru sarreretatik. Kenketa hori %15koa da aitorleak egiaztatutako ahalmen urritasuna egiaztatzen duenean. Errentaren aitorpena egiteko orduan, hobari fiskal hori kaltegarria izan daiteke babes ofizialeko etxea erosi nahi duten ahalmen urrikoentzat. Halako etxe bat erosi ahal izateko, egiaztatu behar da erosteko aukera ematen duten gutxieneko diru sarrerak izatea, eta ekonomia kaudimenaren froga PFGZn ezarritako gutxienekoa baino zerga oinarri

handiagoa izatea da. Hor sor daiteke ahalmen urrikoentzako eragozpena: urtean ahalmen urritasunik gabeko pertsona batek adina diru sarrera eduki arren, ahalmen urritasunik gabeak babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko aukera izango luke PFGZn eskatutakoa baino zerga oinarri handiagoa izateagatik, baina gerta liteke da ahalmen urrikoa gutxieneko zenbateko horretara ez iristea, zerga oinarriaren kalkulua egitean lanaren etekinaren % 15a kendu duelako.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailari iradoki zitzaion babes ofizialeko etxebizitza eskatzen zuten ahalmen urrikoen kasuan izatezko diru sarrerak hartzeko kontuan, hobari bereziari begiratu gabe. Ez da iradokizuna onartu.



(Diario Vascoren argazkia)



(El Correoren argazkia)

SASOIKAKO LANGILEEI OSTATU EMATEKO BALDINTZAK ARAUPETU BEHAR DIRA

1996. urtetik, Ararteko erakundeak urteko txosten guztietan agerrarazi ditu bere kezka eta proposamenak batez ere Araban mahatsa eta patata biltzera etorri ohi diren sasoi langileen eta beren familien egoeraren gainean. Garrantzi berezia du ostatu emateko baldintzen gaiak, non, proposamenak egin diren arren, ez baita hobekuntza nabarmenik lortu.

Sasoi langileen lau ostatu egoera-mota daude: erakundeek sustatutako aterpe etxeetan hartzen diren pertsonenak (egun batez edo bi egunez); kanpaleku izateko prestatzen diren eremuetan kanpatuta egoten diren familia; kontratatzen dituzten nekazari zein enpresek prestatzen dituzten lokalean sartzen diren familia eta pertsona, eta ahal duten tokian eta moduan lo egiten duten familia eta pertsona. Lan eremuetara joaten diren pertsona asko eta asko benetan penagarri eta duintasunik gabeak diren baldintzetan bizi ohi dira, eta horrek 1997an ostatu emateko baldintzak araupetzeko gomendioa sakontzera eramane gaitu.

Proposamenak dio Eusko Jaurlaritzaren dekretu batean mahats eta ardo ustiapenetan eta patata ustiapenetan, gutxienez sortzen diren berrietan eta daudenen hedapenerako proiektuetan, sasoi langileei ostatu emateko instalazioak eduki behar dituztela ezarri beharko litzatekeela, ustiapenaren beharren eta ekoizpen ahalmenaren arabera zehazten den proportzioan, eta Arabako Foru Aldundiaren dekretu batean sasoi langileentzako instalazioak egokitzeko laguntzen deialdia atera beharko litzatekeela. Esaten du, halaber, lurraldearen antolamendurako dokumentu estrategikoetan eta ukitutako udalerrietako arau subsidiarioetan ere behar diren neurriak sartu beharko liratekeela, ostatu emateko instalazioak egiteko modukoak eta bideragarriak izan daitezkeen.

TRATU TXARRAK ARRAZA BELTZEKO ATZERRITAR BATI BILBON POLIZIAK ATXILOTZEAN



Deustuko ertzain etxea

(El Correoren argazkia)

CEAR-Euskadiko ordezkari batek atzerritar bati zenbait ertzainek eman zioten tratu okerrarengatik Epaitegian jarri zuen salaketaren kopia aurkeztu zuen. Kolpatu, lurrean arrastaka eraman eta iraintzeaz gain, lepoan porra jarri eta arnasa hartzea oztopatu ziotela zioen. Deustuko ertzain etxera eraman zuten, eta han sorospen juridikoa jaso zuen. Abokatuak ubeldurak eta ukabilkaden aztarnak ikusi zizkionean, atxilotua ospitalera eramateko eskatu zuen eta salaketa jartzea gomendatu zion.

Azaldutako gertaera horien berri eman zitzairen Ertzaintzaren arduradunei, behar ziren neurriak hartzeko, eta kexa espedientea abiarazi

zen Arartekoak lehenagotik egindako gomendioekin zerikusia zuten bi gai aurkezteko. Deigarria zenez gertaera horiek lehenagoko beste kasu baten oso antzekoak izatea, ertzainek, indarraz baliatu direnean, zergatik eta nola erabili duten agerrarazteko lehenago egin zen gomendioa betetzen zen ala ez jakin nahi genuen, baita droga duelako susmagarria denari droga irenstea eragozteko lepotik heltzea baztertu behar delako gomendioa betetzen den ala ez ere.

Herrizaingo Sailak erantzunarekin batera Ertzaintzaren hiru lurraldeetako buruzetara bidalitako komunikazioaren kopia ere helarazi zigun, non Arartekoaren gomendioak betetzeko borondatea adierazten baitzen eta lehen aipatutako praktika horien gaineko jarraibideak ematen baitziren.

Azkenean atxilotu eta biluzarazi zuten

DONOSTIAKO ZENBAIT UDALTZAINEK EMAN ZIOTEN TRATU OKERRAREN SALAKETA



(Diario Vascoaren argazkia)

Kexa jarri zuen emakumeak azaldu zuen goizaldean Udaltzaingoa polizia etxera joan zela maleta baten lapurreta salatzeraz, eta hasiera-hasieratik udaltzainek ez zutela salaketa hartu nahi izan, mozkortuta zegoela iritzi ziotelako, eta azkenean polizia etxetik kanporatu zutela eta udaltzain batek zeramatzan zorroa eta kaskoa ere kalera bota zizkiola. Erantsi zuen, bere protesta zaratsuen ondorioz atxilotu egin zutela, biluzarazi eta miatu egin zutela. Tratua iraingarri eta laidogarri hori, bere esanean, inolako justifikaziorik gabe jasan zuen.

Bi alderdiek, atxilotuak eta udaltzainek, jarri zituzten salaketak epaitegian, eta gertaerak ikertzeko eskumena Justiziarena da. Hala ere, Arartekoak atxilotua biluzarazi eta miatu behar dela erabakitzeke zein irizpide erabiltzen diren jakin nahi izan zuen. Epaitegi Goreneko eta Konstituzio Epaitegiko epaietan ezartzen diren irizpideak erabiltzen zirela zioen erantzunak, bestelako zehaztasunik gabe, baina Arartekoari ez zitzaion nahikoa begitandu, eta gomendio hau egin zuen: "Atxilotetetan, gorputza erabat biluzik miatzeko neurria ezin daiteke ohikoa eta sistematikoa izan, zentzuzko eta proportziozko irizpideen arabera, atxilotuaren edo egozten zaion delituaren inguruabarrek zein atxilotetaren dinamikak beharrezko egiten duten kasuetan baino ez baitago justifikatuta. Edonola ere, halako neurriak hartzen direnean, arduradunak erabakia idatziz agerraraziko du, arrazoiak labur azalduz, ondoren neurria egokia izan den ala ez kontrolatu ahal izateko".



(El Correoren argazkia)

BITARTEKO FUNTZIONARIOEK ERE IZAN BEHAR DUTE SEME-ALABAK ZAINTEKO NAHITAKO ESZEDENTZIA HARTZEKO ESKUBIDEA

Hezkuntza Sailak semea edo alaba zaintzeko eszedentziaz gozatzeko aukera ukatu zion egonkortasunik gabeko bitarteko funtzionario irakasle bati (eszedentzia hori egun senitartekoak zaintzeko eszedentzia gisa jasotzen da legean). Horretarako, halako langileen kontratuen berariazko ezaugarriak alegatu zituen.

Besteak beste, Konstituzio Epaitegiak antzeko kasuen gainean eman dituen bi epaitan oinarrituz, hezkuntzako arduradunei eskatu zitzaion egonkortasunik gabeko bitarteko funtzionarioei ere emateko senitartekoak zaintzeko eszedentziaz gozatzeko aukera, baina orain arte ez da ezer lortu. Jarduera hori osatzeko, Ararteko andreak Euskadiko herri funtzioko gainerako atalei ere egin die gomendio hori, eta oso harrera ona izan du.

ADIN TXIKIKOEN LEGEA: AURRERAPENAK ETA PUNTU KRITIKOAK

Ararteko erakundearen aurreko urteetako txosten berezi batean, legeak urratzen zituzten adin txikikoekin nola jokatu zen aztertu zen. Arazo honekin zerikusia duten intereseko gaien artean, besteak beste, txostenean bereziki adierazi zen adin txikikoaren lege bat falta zela, herritar multzo horretakoek arauak urratzen zituztenean beren beregi nola jokatu behar zen zehazteko. Adin txikikoaren erantzukizun penala araupetzen duen legea onartuta eta indarrean dago jada.



(Diario Vascoren argazkia)

UDALEK GURASO BAKARREKO FAMILIAK BAZTERTZEKO ARRAZOIAK EZABATU BEHARKO LITUZKETE ZENBAIT HERRI PREZIO ARAUPETZEN DITUZTEN ORDENANTZETATIK

Seme edo alaba baten ardura zuen pertsona bereizi batek bazterkeria jasan zuen ezkonduer e giten zaienaren aldean. Bera eta semea Bilboko kiroldegian sartzeko abonua eskatu zuenean, bi aukera baino ez zioten eman: aita, ama eta semearen edo alabaren prezioko familia karneta ala hori baino garestiagoa zen banakako bi karnet ateratzea. Bi kasu horietan, guraso bakarreko familia gisa hartu gabe, bientzako karneta ezkonduen familiakoetan kide bakoitzeko ordaintzen dena baino askoz ere garestiagoa zen.

Berdintasunaren printzipioaren ikuspegitik, bereizita egoteak kexa egin duen pertsonari horretan bakarrik oinarritzen den kalte ekonomikoa dakarkio, eta hori deitoragarria


da juridikoki. Berdintasunaren printzipioaren egiaztapenaren inguruan eman diren konstituzio epaien jurisprudentziaren ildo beretik doa Eusko Jaurlaritzak guraso bakarren gainean egin berri duen azterlana. Azterlan horretan, talde hori gizarte mailan gutxietsita dagoela eta talde horren aldeko diskriminazioa egin behar dela adierazten da.

Kexa zehatz hori eta horren inguruko arazoak aztertu ondoren, dagokion udalari hauxe gomendatu zaio: kiroldegien prezioak araupetzeko ordenantzetan, guraso bakarreko familia gutxiestea dakarren edozer ezaba dezala aurrerantzean.

Komeni da azpimarratzea adin penala eta adin zibila parekatzen dituela -urte askotako atzerapenez bada ere-, eta hartara, gai horren gaineko nazioarteko araudia eta, bereziki, Haurren Eskubideen Hitzarmena betetzen dituela. Adin txikikoaren eta nerabeen tratua bereizteak esan nahi du onartzen dela nortasunaren garapenean murgilduta daudela eta, ondorioz, erantzukizun maila ezin dela helduenaren parekoa izan. Abiapuntu hori hartuta, lege berriak zenbait neurri ezartzen ditu, -zigortzeko diren arren- hezteko helburua dutenak eta arauak urratzen dituzten adin txikikoak gizartean txertatzera bideratuak.

Zigorra adin txikikoaren inguruabar zehaztetara egokitze asmoa da legearen

funtsezko oinarri bat, eta horretarako neurri sorta zabala eskaintzen da. Ontzat jotzeko modukoa den oinarri horretan salbuespen garrantzitsu bat egin da, araupetze berriaren puntu kritiko behinengoa dena, hain zuzen. Hona hemen salbuespena: 16tik 18 urtera bitarteko gazteek burututako ekintzak oso larritzat jotzen direnean, espetxeratze zigorrak objektiboak eta handiagoak izaten dira. Horixe gertatzen da, legearen jatorrizko idazketaren arabera, adin txikikoek behin eta berriz delituak burutzen dituztenean edo terrorismo delituetan. 7/2000ko Lege Organikoak egin duen erreformak azpimarratu egin du zigorra larriagotzeko arrazoi hori, eta konstituzio oinarriekin nekez batera daitezkeen mugetaraino eramaten du zorrotasuna.



(El Correoren argazkia)

SANEAMENDUKO KANONA KOBRATZEN ZIETEN ZERBITZUAZ GOZATZEN EZ ZUTEN ERABILTZAILEEI

Bizkaiko herrigune bakartuetan bizi diren herritar asko, ur hornikuntzako zerbitzuaren erabiltzaileak, kexatu egin ziren "saneamenduko kanona" ere kobratzen zitelako, nahiz Uren Partzuergoak beraiei saneamendu-zerbitzurik ez eman. Gehienak nekazari eta abeltzainak ziren, eta hondar uren tratamendurako dispositiboak beren kabuz ordaindu behar zituzten arren, Partzuergoak ordainarazi egiten zien ematen ez zien zerbitzua ere.

Udal Ogasunen Legeari, foru aginduei eta Epaitegi Gorenak herri tasa eta prezioen gainean egindako zehaztapenei begiratu, Bilbao-Bizkaia izena hartu duen Bilbo Handiko Uren Partzuergoari gomendatu zitzaion zerbitzua araupetzeko ordenantza fiskalak egiteko. Azpimarratu zen ur hornikuntza eta saneamendu kontzeptuak banatu behar zirela, eta benetan ematen diren zerbitzuak baino ez direla kobratu behar. Egindako gomendioei jarraitzen dien ordenantza hori onartu dute oraintsu.



(Diario Vascoren argazkia)

JABEKIDEEN GARAJEETARAKO PASABIDEEN PREZIOAK GARESTIEGIAK ZIREN

Auzo elkarte bateko kideei neurritz kanpokoak iruditzen zitzaizkien jabekidetzan zituzten garajeei zegozkien pasabide gordeengatik eta espaloietako igarobideengatik Donostiako udalak azken urteetan kobratu zizkien diru kopuruak.

Informazio eske jo genuen udalera, eta horrek zera erantzun zigun: jasotako kexak ikusita, sarbide eta espaloietako pasabideen herri prezio berriei buruzko txostena eskatu ziotela kanpoko bati. Txostenak zioenez, lurra espaloiko pasabiderako erabiltzen zenean, bereizi egin behar zen jarduera ekonomikorako (lonjak, dendak) ala etxebizitzetarako ziren (etxeen jabeen garajeak). Azken kasu horretan, ezarritako prezioak asko jaitea gomendatzen zuen.

Udalak hala egin zuen, eta aurreko urteei zegozkien likidazio berriak egin zituen.

ZERGEN ADMINISTRAZIOAK ZERGADUNEI ITZULI BEHARREKO KOPURUEN KORRITUAK ORDAINTZEA

Zenbait pertsonak gai honen inguruan aurkeztu dituzten kexak ikusita, eta zenbait administrazioen jarduna batzuetan zuzena ez dela ohartuta, nahitaezkoa da zergen euskal administrazioei ondokoa gogoraraztea:



(El Correoren argazkia)

EZ ZUTEN TELEBISTAREN SEINALERIK HARTZEN EUREN ANTENETAN

Bilboko El Peñascal auzoko bizilagunen elkarteak kexatu egin zen bazirelako bi urte baino gehiago Euskal Telebistaren seinalea ondo hartzen ez zutela, eta ezin zituztelako ETBren bi kateak ikusi. Arazoa Ganeta mendiko errepikagailuak jasandako sabotajearen ondoren sortu zitzairen, une hartatik aurrera beren etxeak errepikagailu horrek hartzen zuen eremutik kanpo geratu baitziren. Bertako auzokideek ordutik hona zegozkien erakundeekin izandako elkarrizketek ez zuten emaitza onik izan.

Arartekoak esku hartu zuen Eusko Jaurlaritzan gai horretaz arduratzen den Sailaren aurrean, eta handik hilabete batzuetara El Peñascal auzunean Euskal Telebista ikusten zen, eremu hura hartzeko dorre errepikatzailea jarri ondoren.

- Zergadunen Eskubide eta Bermeei buruzko 1/1998 Legea eta lurralde historikoetako zergen gaineko foru arauetan egin ziren aldarazpenak onetsi ondoren, administrazioak, bai diru sarrera desgokiak itzultzean bai ofizios itzuli beharrekoetan ordaindu behar duen korritu-tasa honako hau izango da: ordainketari dagokion epean zehar indarrean dagoen berandutzako korritua.

- Korritua kalkulatzeko epearen amaierako unea zergadunaren izateko ordainketaren unea izango da, eta ez ordainketaren proposamena egiten denekoa.

- Administrazioak automatikoki aplikatuko du berandutzako korritua, zergadunak ordaindakion berariaz eskatzen ibili beharrik gabe

BURUKO GAITZAREN TRATAERA GURE ERKIDEGOAN: BURUKO GAITZ KRONIKOAK IZANDA, OSPITALETIK KANPO JASOTZEN DITUZTEN PERTSONAK

Txosten berezia

Azken hamabost urteotan, Euskal Herrian, inguruko beste eremu batzuetan bezala, artatze psikiatrikoan erreforma garrantzitsua burutu da. Buruko gaixotasunak dituzten pertsonen desinstituzionalizazioa lortu nahi izan da, eta pertsona horien beharrei, erkidego mailan, ospitaletik kanpo artatuz erantzun hobea ematea. Txosten honetan buruko gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak



Mertxe Agundez, jarduneko Arartekoa, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean txosten berezia aurkezten

gure erkidegoan egun nola artatzen diren aztertzen da.

Txostenan argi eta garbi eta behin eta berriro agertzen diren zenbait elementu azpimarra daitezke, eskubideak bermatzeko ikuspegitik bereziki esanguratsuak direnak: pertsona horien beharrak eta eskubideak eta eskubide horiek bermatzeko baliabideak moldatu beharra; erantzukizunak argitu eta

“eremu gizarte-osasunekoak” garatu beharra; artatzeko sare eta zerbitzu desberdinak koordinatu beharra; bitarteko baliabideen ageriko gabezia; beren beregiko zailtasunak eta artatzeko arazo bereziak dituzten taldeak daudela; sare naturala sostengatu beharra.

Inplikaturako administrazioei zenbait gomendio egiten zaie, arestian esandako arazo horiek zuzentzen saiatzeko.

ARGITALPENAK


■ Eusko Legebiltzarrentzako Txostena, Arartekoak aurreko urtean egindakoa jasotzen duena.

■ Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo: buruko gaitz kronikoa izanda, EAEn ospitaletik kanpoko zaintza jasotzen duten pertsonak gaiaren gaineko txosten berezia.

■ Bakearen kultura: giza eskubideen oinarria, Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroetan Arartekoarekin batera antolatutako egunean izandako ponentzia eta hitzaldien bilduma.

■ XVIII. mendean argitaratu zen Miguel de Lardizábalen Apología por los Agótes de Navarra y los Chuetas de Mallorca, con una breve digresión á los vaqueros de Asturias obraren argitalpen berria.

Giza Eskubideen aldeko Munduko Egunean, alegia, abenduaren 10ean, Arartekoak urtero kartel bat ateratzen du, eta jaz, Bakearen aldeko Kulturaren Nazioarteko Urtea izan zen 2000 urtean, kartelaren Iloa hauxe izan zen: “Eraiki dezagun bakearen aldeko kultura bat”. Kartelak Euskadiko Autonomia Erkidegoko ikastegietan banatzen dira, ikusteko moduko tokietan jarrita, neska-mutilak giza eskubideen kulturari hezten laguntzeko.





Vicenç Fisas, Xabier Markiegi, Federico Mayor Zaragoza eta Gurutz Jauregi Udako Ikastaroetako Jardunaldian

Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroetan Arartekoarekin batera antolatutako Jardunaldia

BAKE KULTURA: GIZA ESKUBIDEETARAKO OINARRIA

Jardunaldi horretan bake kultura giza eskubideak gauzatzeko nahitaezkoa dela aztertu zen. Arartekoaren aurkezpenean, euskal gizarte zatitu honetan lehenbailehen bakearen aldeko kultura garatu behar dela azpimarratu zen, bake iraunkorraren sostengu eta bermeak diren belaunaldi berrien eta belaunaldi berri horiek baloreetan heztearen garrantzia bereziki aipatuz. Euskal gizartearen antzematen den gizarte hausturaz eta etikaren gainbeheraz ohartarazi

zuen, eta amaitzeko, giza eskubide legez "bakerako eskubidea" ere eraiki behar dela aldarrikatu zuen.

Mayor Zaragoza irakasleak "Bake Kultura" izenburuko bere ponentzian bake kultura kontzeptuaren, elkartasunik ezeko egoeraren, haurren esplotazioaren gaineko hausnarketa egin zuen. Askatasunaren balore gorena berretsi zuen, eta Euskal Herriko egoeraren gaineko itxaropenezko mezuaz amaitu zuen.

Vicenç Fisas irakasleak, "Bakearen aldeko kultura euskal testuinguruan" bere ponentzian, entzun, hitz egin eta errespetatzeko beharra azpimarratu zuen, eta "hitza desarmatzetik" hasi behar dela esan zuen. "Liluratzearen politika" izena eman dionaren aldeko apustu

sendoa eginez amaitu zuen.

Jardunaldiaren bigarren zatian mahaingurua egin zen, eta Bakearen aldeko Taldearen (Gesto Por la Paz), Denon artean taldearen eta Elkarriren ordezkariak parte hartu zuten.



ERAKUNDEAREN BURUAREN ALDAKETA:

Xabier Markiegi 2000ko irailaren 10ean Ararteko izateari halabeharrez utzi zion, kargua hartu zuenetik legezko 5 urteko epea amaitu, eta Eusko Legebiltzarrak erakundearen titularra hautatzeko dituen sei hilabeteak inor hautatu gabe igaro zirenean. Legeak xedatzen duenaren arabera, ordura arte Arartekoaren Ondokoa zen Mertxe Agúndez andreak hartu zuen ardura hori, jarduneko Ararteko izaten hasi zelarik. Argazkietan, Xabier Markiegi eta Mertxe Agúndez Eusko Legebiltzarreko Buru Juan Mari Atutxarekin, agurtzeko eta aurkezteko protokolozko ekitaldian, hurrenez hurren.



(El Correoren argazkia)

Erakundearen idazki guztietan “ETArrik ez, ETA no” esaldia sartuko da, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 3. artikularekin batera

ARARTEKO ERAKUNDEA TERRORISMOAREN AURKA

Ararteko erakundeak, zeina Euskadiko Autonomia Erkidegoko estatutuak konstituzioan aitortzen diren eskubideak babesteko sortu baitzuen, oso kezkatuta dago ETAREN erahilketa eta bestelako ekintzek pertsona askoren eskubiderik oinarritzkoenak behin eta berriro urratzen dituztelako.

Erakunde honek ez dauka herri eremutik ez datozen eskubideen urratzei aurre egiteko baliabiderik. Hala izanik, eskubideen etengabeko urratzeen aurkako bere protesta adierazi du, eta protesta hori orain arte batez ere urratze horien adierazpiderik larrienen aurkako ekimenetan, alegia, bizitza eta askatasun eskubideen aurkako erasoaren aurkako ekimenetan gauzatu dira.

Hain eskubide urratze basatien aurka erantzun ekintzak antolatzea dagoeneko nahikoa ez dela iritzita, Ararteko andreak 2000ko azaroaren 17an erabaki zuen oroigarri iraunkor bat irudikatzea, mundu osoan ezaguna den Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 3. artikulua indarrean iraun behar duela gogorarazteko. Urteko egun guztietan gogoan izan dezagun gizarteak ezin duela bizikidetzaren harremanik antolatu herritar guztien bizitza, askatasun eta segurtasun pertsonalak errespetatzen ez badira, Arartekoak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 3. artikulua hori, non esaten baita “Pertsona orok du bizitzeko, libre izateko eta segurtasunerako eskubidea”, bere erakundearen idatzi guztietan euskaraz eta gaztelaniaz jartzea erabaki du, bai eta “ETArrik ez, ETA no” testua ere.

KOORDINAZIO, HEDAPEN ETA IKERKETA JARDUNAK GIZA ESKUBIDEEN ALORREAN

Beste herri defendatzaile batzuekiko topaketa eta kongresuak

■ Arartekoak Gasteizen egin ziren Herri Defendatzaileak Koordinatzeko XV. Topaketetan parte hartu zuen, Espainiako eta autonomia erkidegoetako Herri Defendatzaileekin batera. “Gure erakundearen bakearen kulturarako ekarpena” ponentzia aurkeztu zuen.

■ Orduan Ararteko zen Xabier Markiegi “Adin txikiko lege urratzaileen tratamendua” izenburuko komunikazioa aurkeztu zuen X. Gailur Iberoamerikarrari haurtzaro eta nerabearen gaineko proposamenak formulatzeko Bartzelonan egin zen FIOren Mintegian.

■ Ciudad de Méxicon egin zen Obdusman-en Federazio Iberoamerikarraren (FIO) urteko V. Kongresuan, jarduneko Ararteko Murtxe

Agúndezek “Ararteko erakundearen lana pertsona atzerritarren eskubideen defentsa eta sustapeneren gainean” izenburuko komunikazioa aurkeztu zuen.

Ikerketa beka eta eskola materialen egintza

Une hauetan giza eskubideei lotutako ikerketa beka bi garatzen ari dira, bata herritar kontzeptua atzerritarren egoerari aplikatzearren gainean, eta bestea ingurumenaren gainean.

Erakundeak giza eskubideen hezkuntzaren gainean eskoletan erabiltzeko materialak egiteko beken deialdiak ere antolatzen ditu. Lehen beka eman zitzaion taldeak egindako materiala eskoletan erabiltzen ari da dagoeneko.

Bigarren beka jaso zuen taldeak ere amaitu du bere lana, eta ikasgela-egoeren saioak egin direnez, laster banatuko dira material horiek eskoletara.

Iaz iragarri zen hirugarren bekari dagokionez, helburua zen haurren eskubideez arituko ziren materialak prestatzea, Lehen Hezkuntzako ikastegiak erabiltzeko modukoak. Sormen lana urtean zehar amaitu da, eta argitaratu eta hedatzeko urratsak ematen ari dira orain.

Azken deialdiaren berariazko helburua multimedia euskarriko materialak lortzea da. Eskakizun hau berria da aurreko deialdien aldean, eta lana zaildu egiten du. Uneotan oraindik esleitzeko dago.



¿DÓNDE ACUDIR?

Oficinas de atención directa

En Alava

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Fax: 945 13 51 02

En Bizkaia

Alameda de Mazarredo, 15 - 5º A • 48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09 • Fax: 944 24 18 44

En Gipuzkoa

Prim, 9 - entlo. izda. • 20006 Donostia - San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88 • Fax: 943 42 72 97

Si necesitáis más información, llámanos

¿NORA JOAN?

Harrera zuzeneko bulegoak

Arabán

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Faxe: 945 13 51 02

Bizkaian

Mazarredo, 15 - 5. A • 48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09 • Faxe: 944 24 18 44

Gipuzkoan

Prim, 9 - beheg. ezk. • 20006 Donostia - San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88 • Faxe: 943 42 72 97

Dei izaguzu argibide gehiago behar baduzu



ARARTEKO

¿Necesitas defender tus derechos?

ACUDE A LA INSTITUCIÓN DEL ARARTEKO

- Para que investigue si la administración pública vasca ha cometido contigo algún abuso, arbitrariedad, discriminación, error o negligencia.
- Para que el Ayuntamiento, la Diputación o el Gobierno Vasco solucionen tu problema si ha actuado incorrectamente.
- Para que recomiende mejoras en beneficio de todos.

¿QUÉ ES?

- Es la **Defensoría del Pueblo del País Vasco**.
- Es una institución **independiente**.
- Es un servicio **gratuito**.

¿QUÉ HACEMOS?

- Defendemos a las personas frente a las administraciones públicas vascas.
- Mediamos entre los ciudadanos y la administración.
- Vigilamos y actuamos para corregir situaciones irregulares.
- Proponemos soluciones y promovemos modificaciones de las leyes.
- Informamos de nuestras actuaciones al Parlamento Vasco.

¿CUÁNDO SE DEBE ACUDIR?

- Cuando tengas un problema con alguna administración o servicio público dependiente de ella.
- Después de haber reclamado ante la administración implicada y no haber obtenido respuesta o solución.
- Y dentro del plazo de un año a partir de ese momento.

¿CUÁNDO NO HAY QUE ACUDIR?

- Si el conflicto es entre particulares.
- Si el asunto ha sido planteado en vía judicial.

¿CÓMO PRESENTAR LAS QUEJAS?

- Aportando datos personales (nombre, apellidos, dirección, teléfono), copias de documentos útiles y, cuando sea posible, un escrito con el motivo de la queja.
- Por carta (Prado, 9 - 01005 Vitoria/Gasteiz).
- Por internet desde la web: www.ararteko.net
- O bien, en persona, en cualquiera de las tres oficinas.

Zure eskubideak defendatu beharra daukazu?

ARARTEKORA JO DEZAKEZU

- Euskal administrazio publikoak zurekin gehiegikeriaz, nahikeriaz, bereizkeriaz, oker edo zabarkeriaz jokatu duen ikertzeko.
- Udalak, Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak oker jokatu badu, zure arazoa konpon dezan.
- Guztion onerako hobekuntzak gomenda ditzan.

ZER DA ARARTEKOA?

- **Euskadiko Herri Defendatzailea** da.
- Erakunde **independiente**a da.
- **Dohain** eskaintzen den zerbitzua.

ZER EGITEN DU ARARTEKOAK?

- Pertsonak babestu euskal administrazio publikoen kontra.
- Herritarren eta administrazioaren arteko bitartekari izan.
- Legez kontrako egoerak galeratzeko begiratu eta lan egin.
- Konponbideak proposatu eta legeak aldatzera bultzatu.
- Eusko Legebiltzarrari bere lanaren berri eman.

NOIZ JO ARARTEKORA?

- Administrazio batekin edo haren menpeko zerbitzu publiko batekin arazoren bat duzunean.
- Zerikusirik duen administrazioaren aurrean erreklamatu ondoren, erantzunik edo konponbiderik lortu ez duzunean.
- Momentu horretatik hasita, urtebeteko epearen barruan.

NOIZ EZ JO ARARTEKORA?

- Pertsona partikularren arteko auzia denean.
- Gaia auzitara eramán denean.

NOLA EGIN KEXAK?

- Norberaren datuak (izen abizenak, helbidea eta telefono zenbakia), agiri baliagarrien kopiak eta, ahal denean, kexaren arrazoiak azaltzen duen idazkia eman.
- Arartekoari zuzendutako gutunaren bidez (Prado, 9 - 01005 Vitoria/Gasteiz).
- Internet bidez: www.ararteko.net
- Norbera hiru bulegoetako batera joanez.